

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 51/2021 Foru Dekretua, azaroaren 2koa. Arabako Babes Zibileko Batzordearen osaera eta funtzionamendua onestea

Botere publikoek, babes zibilaren arloan, arrisku larriko egoerak, hondamendia edo hondamen publikoa aztertzeraz eta prebenitzera bideratu behar dute beren jarduna, bai eta pertsonak eta ondasunak babestera eta laguntzera ere, horrelako egoerak gertatzen direnean.

Babes Zibila administrazio publiko guztiei eragiten dien zerbitzu publikoa da, uztailaren 9ko 17/2015 Legean ezartzen den bezala, eta haietako bakoitzari dagokio legean zehazten diren ekintzak gauzatzea.

Babes zibilak, beste ezer baino lehen, arlo horretan diharduten administrazioen bitarteko eta baliabideak antolatu eta hornitzeko koordinazio ahalegina eskatzen du, eraginkortasun teknikoaren, erantzunaren azkartasunaren eta proportzionaltasunaren, koordinazioaren, integrazioaren eta elkartasunaren printzipioen arabera.

EAEen, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onesten duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuak arautzen du gaia.

Apirilaren 24ko 407/1992 Errege Dekretuaren bidez babes zibileko oinarrizko araua onestea-ekin batera, administrazio publiko eskudunei baimena ematen zaie bidezko lurralde planak eta plan bereziak onesteko. Plan horiek homologatzeko, beharrezkoa izanez gero edo goragoko eremuko beste plan batzuetan integratuz gero, oinarrizko arauan ezarritako jarraibideak bete beharko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, 365/1991 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordea sortu zen, babes zibilaren arloan kontsultarako, eztabaidarako, koordinaziorako eta homologaziorako eginkizunak beteko dituen kide anitzeko organo gisa, eta batzorde horretako kide da Arabako Foru Aldundiko ordezkari bat. Ondoren, otsailaren 17ko 24/1998 Dekretuaren bidez, batzorde horren osaera, eginkizunak eta antolaketa arautu ziren.

Foru Administrazioan eguneratu egin behar da azaroaren 3ko 815/1992 Dekretua, larrialdiekin lotuta sor daitezkeen zerbitzu publikoak antolatu, ordenatu, planifikatu eta koordinatuko dituen sistema artikulatzen duena.

Foru dekretu hau egitean kontuan eduki dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatzen dituen araupetze onaren printzipioak, zeinak 3. artikuluan jasotzen baititu Xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honek Arabako Babes Zibilerako Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen ditu.

2. artikulua. Esparru subjektiboa

1. Arabako Babes Zibilerako Batzordea une bakoitzean babes zibilaren eskumena esleituta duen foru sailari atxikitzen zaio, eta kide anitzeko organo gisa jarduten du une oro, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean organo horientzat xedatutakoaren arabera.

2. Batzorde horren funtsezko helburua da Foru Aldundiko sailen artean behar bezalako koordinazioa lortzea babes zibilaren arloan, jarduketa publiko eraginkorra bermatzeko arrisku larri, hondamendi edo hondamen publikoko egoeren azterketan eta prebentzioan.

3. artikulua. Arabako Babes Zibilerako Batzordearen osaketa

Arabako Babes Zibilerako Batzordearen kideak honako hauek dira:

Batzordeburua: diputatu nagusia edo hark eskuorde izendatzen duena.

Epaimahaikideak: Lurralde Oregaren, Gizarte Politiken, Nekazaritzaren, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren eta Ingurumenaren eta Hirigintzaren arloetan eskumenak dituzten sailtako titularrak, zeinek beren saileko goi karguen esku utzi ahal izango baitute beren ordezkaritza.

Idazkaria: babes zibilaren arloko eskumena daukan zuzendaritzako titularra.

Arabako Babes Zibilerako Batzordearen bilkuretara beste pertsona batzuk ere joan ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, aztertu beharreko gaien izaeragatik beharrezkoa denean.

4. artikulua. Arabako Babes Zibilerako Batzordearen funtzionamendua

1. Arabako Babes Zibilerako Batzordeak ohiko bilera bat egingo du sei hilean behin gutxienez, eta batzordeburuak deialdia eginez gero, bai bere ekimenez, bai batzordekideen herenak eskatuta. Era berean, ustekabeko egoeretan eta presazko kasuetan ezohiko bilerak egin ahal izango dira.

2. Arabako Babes Zibilerako Batzordearen bileren deialdiak alde zuzenetik jakinarazi beharko zaizkie kideei: ohiko bilerenak hamar egun baliodun lehenago, gutxienez, eta ezohiko bilerenak egun baliodun bat lehenago.

3. Arabako Babes Zibilerako Batzordearen bilkura balio osoz eratzeko, lehenengo deialdian kideen gehiengo osoa bertaratu behar da. Bigarren deialdian, berriz, nahikoa izango da gutxienez hiru kide bertaratzea, betiere horien artean batzordeburua edo kargu horretan ari dena badago.

4. Erabakiak gai zerrendako aztergaietara buruzkoak izango dira, presazko kasuetan izan ezik (bertaratutakoek aho batez finkatu behar dute presakotasuna), eta bileran dauden kideen gehiengo soilaz hartuko dira.

5. Beste erakunde, zerbitzu publiko, erakunde publiko edo pribatu batzuetako ordezkariak, bai eta batzordeari dagozkion gaietan jarduerak garatzen dituzten elkarteetakoak ere, Arabako Babes Zibilerako Batzordearen bilkuretara joan ahal izango dira eta bertan parte hartu ahal izango dute, hitzarekin baina botorik gabe, baldin eta batzordeburuak bileretara deitzen baditu.

Era berean, bilerarako onetsitako aztergaiak argitzeko beharrezkotzat jotzen diren pertsona guztiak bertaratu ahal izango dira.

6. Arabako Babes Zibilerako Batzordearen antolaketa eta funtzionamendua, foru dekretu honetan aurreikusten ez denari dagokionez, kide anitzeko organoak arautzen dituzten administrazio zuzenbideko arauen arabera arautuko da, eta, zehatzago, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean edo hura ordeztzen duen araudian organo horientzat xedatutakoaren arabera.

5. artikulua. Arabako Babes Zibilerako Batzordearen eskumenak

Arabako Babes Zibileko Batzordeak, babes zibilaren arloan aldundiari dagokion jardun eremuaren barruan, honako eginkizun hauek izango ditu:

– Ekintzen koordinazioan parte hartzea, babes zibilari lotutako beste organo eta erakunde batzuekin batera.

- Kasuan kasuko lurralde plan eta plan bereziei buruzko txostenak egitea, aldez aurretik eta nahitaez.
- Babes zibilari buruzko arau proiektuen txostenak egitea.
- Irizpideak finkatzea Foru Administrazioaren esparruan baliabide mugigarrien katalogoa ezartzeko.
- Babes zibilean erabil daitezkeen tekniken, giza baliabideen eta baliabide materialen normalizazioa aztertzea eta organo eskudunei proposatzea.
- Prebentzio neurriak eta jarduketak aztertzea eta proposatzea.
- Babes zibilaren arloan foru sektore publikoaren politika koordinatua ezartzeko neurriak proposatzea.
- Foru sektore publiko osorako informazio eta prestakuntza ekintzak sustatzea.
- Boluntariora eta asoziazionismoa sustatzea babes zibilaren eta autobabesaren arloan. Arlo horretan, lurraldeko babes zibileko elkarteetan emakumeen parte hartzea sustatuko da. Urtero aztertuko dira babes zibileko elkarteetako kideei buruzko datuak, sexuaren arabera bereizita.
- Foru eta erregelamendu arauak esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da azaroaren 3ko 815/1992 Foru Dekretua, Arabako Babes Zibile-rako Batzordearen osaera eta funtzionamenduari dagokionez, bai eta foru dekretu honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo bertan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta 20 egunera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA